

**2004KO URRIAREN 7AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Zazpia.

HILABETEA: Urria

URTEA: Bi mila eta laua.

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Apartekoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Pello Garaialde Goikoetxea
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Imanol Aranburu Gutierrez
Joan Martin Aldaregia Etxebarria
Jon Olano Arrese
Malu Valles Fernandez
Aitor Aldasoro Iturbe
Ana Asla Egialde
Jon Kortaberria Lasa
Jose Antonio Ibaibariaga Usabiaga
Alfonso Segade González
María Pilar Vispo Chamosa
Julio Herreros Serna
Iñaki Saldaña Herrero

ETORRI GABEAK: Jose Antonio Sanchez Gutierrez
Gonzalo Zaldo eta Arana

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTAK. 2004ko uztailaren 22ko eta irailaren 2ko akten onespena.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

EBko ordezkariak adostasuna azaldu du.

Julio Herreros jaunak esan du aktekin ados dagoela baina ez, "Igartatik plataformaren" ordezkariak zinegotzien mahaiaren inguruan esertzearekin.

Alkateak "Igartatik plataformakoei" atzeratzeko eta publikoarentzat dagoen tokian esertzeko eskatu die.

Plataformakoek esan dute berek eskubidea dutela hor jartzeko eta puntu guztiez beren iritzia eman nahi dutela.

Alkateak esan die bukaeran hitza emango zaiela eta hori ez badute onartzen, Udalbatzaren Osoko Bilkura bertan behera geldituko dela.

Aurreko aktekin jarraitzen da eta plataformakoek esan dute abstenitu egingo direla.

Alkateak une horretan, Udalbatzaren Osoko Bilkura bertan behera utzi du.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta hamarretan amaitu da, eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.